

Planteatutako ekintzak aurrera eramateko baliabide, material zein azpiegitura batzuk beharrezkoak dira. Hala nola, argia, ura, lokala, garraioa... guzti hau lortzeko eta mantentzeko atzetik diru kopuru bat behar da, kostuak deiturikoak. Enpresa bat martxan jartzeko, hainbat prozesu eraman behar dira aurrera eta prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte. Kostuak izendatzerakoan bi talde handitan sailkatu ditugu: kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

Kostu finkoak, eskainitako zerbitzuen arabera aldatzen ez diren kostuei deitzen zaie eta gure kasuan, lokala eta garraioa (autobusa) izango litzateke.

Kostu aldakorrak aldiz, eskainitako zerbitzuen arabera aldatzen diren kostuak dira.

KOSTU FINKOAK	
KONTZEPTUA	PREZIOA (€)
Lokala	800€
Garraioa (autobusa)	210€

KOSTU ALDAKORRAK	
KONTZEPTUA	PREZIOA (€)
Boligrafoak	50eko bi kutxa - 22€
Folioak	2 x 2500 folio - 63€
Arkatza	30eko 3 kutxa - 18€
Margoak	3 kutxa - 13€
Errotulkiek	3 kutxa - 23€
Borragoma	30eko kutxa bat - 7€
Tenperak	8 bote - 31€
Pintzelak	50 pintzel - 16€

Kartulinak	100eko kutxa bat - 12€
Komuneko papera	24 rollo - 9€
Jaboaia	6ko kutxa bat - 10€
Muralak egiteko papera	44cm x 10m - 12€
Baloiak	4ko pack bat - 10€
Soka	Pare bat - 12€
Ura	Hilean - 30€
Argia	Hilean - 72€
Futboleko baloia	Baloi bi - 30€
Saskibaloiko baloia	Baloi bi - 40€

Kostuak guztira: 1462€

Taulan agertzen diren materialak oinarrizkoak dira, hau da, egoitzan izango ditugunak. Hala ere, ekintzaren arabera, batzuetan bestelako gastu batzuk izango ditugu. Kostu horiek nolakoak izan daitezkeen kontuan izateko hiru adibide jarriko ditugu eta horien kalkulua egingo dugu.

- Sellara jaitsiera:

Precios descenso del Sella 2023 con reserva online (20% dto. incluido)	Precio con picnic	Precio sin picnic
De 1 a 10 personas	20 € / persona	18 € / persona
Niños (menores 12 años)	14 € / niño	12 € / niño
De 11 a 20 personas	18 € / persona	16 € / persona
Más de 20 personas	16 € / persona	14€ / persona

Datuak ikusirik, 25 pertsona izango bagina eta picnic-arekin eginez gero irteera, gure gastua 400eurokoa izango litzateke. Hortaz gain, aurreko kostuari bertara arte

joateko garraioaren kostua gehitu behar zaio, ekintzaren kostua 700 eurokoa bihurtuz.

- Macrame: ekintza honen kasuan kostuak askoz ere merkeagoak izango lirateke, ekintza hau burutzeko behar den materiala urria eta merkea baita, hala nola, Macramerako haria eta apaingarriak. Gauzak honela, ekintzaren kostua 50 eta 75 euro bitartean geratuko litzateke.
- Zinemara irteera: sarreraren prezioa izango litzateke ekintza honen kostua. Berrito ere, 25 pertsona izango bagina eta sarreraren prezioa 7 eurokoa izango balitz, ekintza honen kostua 175 eurokoa izango litzateke.

Beraz, hauek izango lirateke gure enpresak izango dituen gastuak. Esan beharra dago oinarrizko gastuak zein gastu aldakorrek altuak direla. Ondorioz, kostuak oso gora egin ez dadin, burutzen ditugun ez-ohiko ekintzak eta horiek suposatzen duten gastu aldakorrek ondo kudeatu eta kalkulatu beharko ditugu, horretarako ekintza hauen maiztasuna ondo neurtuz.